

Aldez aurreko kontsulta publikoa, araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarrizko, erdiko eta goiko mailen curriculuma Nafarroan ezartzen duen foru dekretuaren proiektuaren gainean. Hezkuntza kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatu zuen Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak ezarria da araubide berezi hori.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atarian bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkari handiena duten erakundeek, puntu hauei buruz:

- A) *Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.*
- B) *Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.*
- C) *Araua zer helburu dituen.*
- D) *Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak).*

Agiri honen helburua da zenbait alderdiri erantzutea eta aldez aurretiko kontsultaren oinarri gisa erabiltzea, araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarrizko, erdiko eta goiko mailen curriculuma Nafarroan ezartzen duen foru dekretuaren proiektua prestatzeko. Hezkuntza kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatu zuen Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa.

- A) *Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.*

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa aldatu zuen. Aldaketa horren ondoren, Ministroen Kontseiluak abenduaren 22ko 1041/2017 Errege

Dekretua onetsi zuen, araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak ziurtagirien ondorioetarako finkatzeko, eta B1 erdiko mailaren, B2 erdiko mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren oinarrizko curriculuma ezartzeko.

2/2006 Lege Organikoaren 6.4 artikulua ezartzen du hezkuntza administrazioek aipatutako legean araututako irakaskuntzen curriculuma ezarri behar dutela, Gobernuak, bere eskumena erabiliz, finkatuko dituen curriculumeko oinarrizko alderdietatik abiaturik.

B) Onespenaren beharra eta egokitasuna.

1041/2017 Errege Dekretuak "Ezarpen egutegia" izeneko azken xedapenetako lehenean dio errege dekretu horretan araututako irakaskuntzak, oro har, 2018-2019 ikasturtean ezarriko direla.

Dekretu horrek 2018-2019 ikasturtean, Nafarroan, ezarri behar diren mailen curriculuma ezartzen du. Curriculumak oinarria izanen dira eta oinarri horren inguruan egituratuko dira Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza eskola ofizialetan aipatu errege dekretuan araututako mailen irakaskuntza eta ebaluazioa.

C) Arauaren helburuak.

Foru Dekretu honen helburua da oinarrizko mailaren, B1 erdiko mailaren, B2 erdiko mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculuma Nafarroan arautzea.

Foru dekretu honek indarra hartzen duenean indarririk gabe geldituko dira Nafarroan martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretua, oinarrizko mailaren eta erdiko mailaren curriculuma ezarri zuena, ekainaren 2ko 58/2008 Foru Dekretua, maila aurreratuaren curriculuma ezarri zuena, eta abuztuaren 27ko 67/2014 Foru Dekretua, C1 mailaren curriculuma ezarri zuena.

D) Zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak).

Ez da aurreikusten beste konponbiderik (araurik edo arau ez denik). Agiri hau interesdunen eskura jartzen da Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 eta 133.4 artikuluetan xedatuarekin bat (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Iruñean, 2018ko martxoaren 15ean

ELEANIZTASUNAREN ETA ARTE IKASKETEN ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

Hasier Morras Aranoa